

Gasteiz eta Zamorari buruzko 'Kondaira Paraleloak' hiri-erakusketa, Antso Jakituna Fundazioan

- **Proiektua, aipatu bi hirietako pertsona anonimo batzuen zenbait kontakizun liburuetan inoiz jaso gabeetan barneratzen da.**
- **Haren egoitzan, Betoñuko Atean, ikusi ahalko da ekainaren 10etik irailaren 20ra bitartean, eta erakusketan bertan pertsonaia zenbaiten irudiak, pasadizoak eta une garrantzitsuak erakusten dira**

Gasteiz, 2013ko ekainaren 7a.- 'Kondaira paraleloak' baterako proiektu bat da, **Zamorako eta Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi Eskolek** elkarren artean egindakoa — Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioaren ARCE (ikastetxeen elkarteak edo sareak) programaren barruan dago—. Egitasmoa historiako liburuek jasotzen ez dituzten bizitza apal eta ezezagun baina protagonistatzat pertsonaia nabarmenak izan dituzten beste gertaera handiago horiei zentzua eman dietenetan barneratzen da. Ekimenak 30 kontakizun ditu eta bi ikasturtean (15 kontakizun hiri bakoitzeko) garatu da; kontakizunok iruditan eratu dituzte arlo desberdinetako zenbait ikaslek, eta haietatik bi, gainera, ekimen honexetarako asmatu dira. Erakusketa **Antso Jakituna Fundazioaren** egoitzan ikusi ahalko da ekainaren 10a eta irailaren 20a bitartean.

Erakusketa belaunaldiz belaunaldi transmititu diren historia eta istorio zenbait islatzeko ahalegin bat da, eta horretarako ikus-lengoaia zuzen eta erraz bat baliatu da, hain zuzen ere Gasteizko eta Zamorako herritarrek, euren kultura mailaz zein euren hautemateaz at, erraz ulertzeko modukoa. Horrenbestez, bada, 'Kondaira paraleloak' egitasmoak hezkuntza arloaz haragoko lokarriak ezarri ditu bi eskolen artean, horrela sustatzen delarik bi hirik elkar ezagutzea gizarte-, historia- eta kultura-zubien bidez, iraganean oinarritutako garatze-proposamen baten bitartez.

Horrenbestez, bada, proiektuari ekiteko, lehenengo eta behin, hiri bakoitzak bizi izandako une garrantzitsuak, pertsonaiak eta pasadizoak definitu ziren, helburua zela hiriburu bietan 'Hiri Erakusketa' bat egitea. Hasiera batean, asmoa zen aire zabalean erakusteko egitea eta bertan, jatorrizko proiektuaren arabera, etorkizunean izan zitzakeen kokalekuak jasota agertuko ziren, gero ere haietako bi eskala errealean eraiki direlarik.

Zamoran egon ondoren, Antso Jakituna Fundazioa izan da Gasteizerako aukeratutako erakustokia, halako eraz ezen, eskulturako konnotaziodun iraupen gutxiko arkitektura-elementu batzuk hartu ditzan, erakusketa egituratzen duten pertsonak eta gertaerak azaltzen direlarik beraietan ipinitako testu eta irudien bitartez. Eta horri guztiari laguntzeko,



irudikapen grafikoa eskuko publizitate-euskarrietan: foiletoak, hormirudiak, fitxak, etab., zeintzuk dibulgaziorako prestatu baitira beren-beregi.

Erakusketara etortzen diren ikastetxeek, gero, asmatutako istorio biak aukeratu ahalko dituzte eta bakoitzak bere botoa eman atabaka batean. Igartzen dutenek *e-book* baten zozketan parte hartuko dute, kategoriaka banatuta: 'Ikerlari txikiak', 6 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoak, eta 'Ikerlari handiak', 12 eta 15 urte bitartekoak.

'Kondaira paraleloak' erakusketa ekainaren 10a eta irailaren 20a bitartean ikusi ahalko da, Antso Jakituna Fundazioaren egoitzan,, Betoñuko Atea, 23an, astelehenetik ostiralera, 10:00 eta 14:00 eta 16:00 eta 19:30 bitartean. Sartzea libre da.

- **Harremanetarako pertsona:**

Jesús Zubiaga
Antso Jakituna Fundazioa
Tel.: 945 253932
fs-inv@fsancho-sabio.es

Sancho el Sabio
Vital Fundación 